

CANVAS EREDUA: READEASE
<https://readease.cms.webnode.es>



AURKIBIDEA:

1. IDEIA _____	2.or
2.BALIOA _____	3.or
3. SEGMENTAZIOA _____	4.or
4. ELKARTEAK _____	5.or
5. IRABAZI ITURRIAK _____	6.or
6.KANALAK _____	7.or
7.HARREMANAK _____	8.or
8.BALIABIDEAK _____	9.or
9.JARDUERAK _____	10.or
10.KOSTUAK _____	11.or

2. BALIOA

Balorezko proposamena, produktua erostearekin batera, bezeroek jasotzen dituzten abantailak dira.

► BERRIKUNTZA.

Berrikuntzei dagokienez, jada existitzen den produktua hobetzea izango litzateke: ahots robotikoak, interpretazio eta errealak diren ahotsak ordezkatuko dituzte.

► LANA ERRAZTEA

Ahots robotiko batetik pertsona baten ahotsera pasako gara. Honekin, ikasleak modu naturalagoan (egunerokotasunean entzun ahal duten ahotsa entzungo dutelako) ulertuko dute edukia.



► DISEINUA

Webgune bat izango da eskainiko duguna. Bertan aurkibide dinamiko batekin, ikasgai bakoitzari dagokion informazioa izango dute, modu erraz eta azkar batean.

► PERTSONALIZAZIOA

Erabiltzaile guztiek “chat” bat izango dute, sumatzen dituzten arazoak kontatzeko. Ikasle eta irakasle digitalaren artean hurbiltasuna lortu nahi dugu.



► PRESTAZIOAK

Webgunea, bere, horretan eta elkarriketarako bidea izango dira eskaintzen diren prestazioak. Arreta zerbitzua bermatuta egongo da.

► MARKA ETA ESTATUSA

READEASE-k eskaintzen duena, Euskal Herri mailan hezkuntza sektorean aurrerapena denez, arrakasta lortzea posible dela pentsatzen dugu.



► PREZIOA

Zerbitzua argitaletxe desberdinei salduko da eta horiek izango lirateke gure irabaziak. Salmenta prezioa, audioa sortzeko behar izan den ordu kopuruaren arabera joango litzateke.

► ARRISKUA MURRIZTEA

Aurretik existitzen den zerbitzu horrek ondo funtzionatzen du, beraz, horri hobekuntzak eginda bezeroek konfiantza guztia izango dute gure zerbitzuarengan.

► ESKURAGARRITASUNA

Ohikoak diren testu liburuak erostearekin batera datorrenez, guztiontzat eskuragarri egongo den webgunea da.



► ERABILERRAZTASUNA

Pertsonalizatuta egongo denez, ikasle bakoitzak beharko dituen baliabide eta erraztasunak izango ditu.

LABURBILDUZ:

- Gure proiektuak ahalbidetzen du, modu **erraz eta dinamiko** batean, testu liburu interpretatuak modu eraginkorrean entzutea.